

noaua

**Euskararen Egunari
begira, Udalaren
adierazpen instituzionala**

**Larunbat honetan,
Kantu-dantza-jira**

**Hirugihar pintxo bereziak,
Tipi-Taparen lehen
urteurrenean**

Mendi Astea

Aurtengo irteeren irudiak, Sutegin ikusgai



**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



**MAUXAREN
DENDA**
(M.Luisa Sambade)



943 100 275 Pablo mutiozabal 1, LASARTE

ONTZI ARINETAN PLASTIKODUN ONTZIAK, LATAK ETA BRIK-ak SOILIK



* GARBIGUNERA EDO ERREFUSARA

**INGURUMENA GUZTION ARDURA DA
BIRZIKLA DEZAGUN!**



GOGORATU: ONTZI ARINAK ASTEARTE ETA OSTIRALETAN

Albistearen iruditan

Etxean da Ramon Uribe

1 9 urte eta gero, azaroaren 20an 17:00ak aldera utzi zuten aske. Salamancako Topaseko kartzela atarian, Usurbildik hara joandako senide, lagun eta herritar taldea zuen zain. Une hunkigarriak bizi izan ziren. Haiekin guztiekin egin zuen Ramonek, sorterrirako itzulera.

Uribek 18 urte gehi bat egin ditu espetxean. Gogoan izan behar baita, berez, espetxe zigor osoa beteta iazko abenduaren 3an aske behar zuela kalezartarrak. Baina azken unean, 197/2006 doktrina aplikatu eta 2024. urtera arte luzatu zioten espetxealdia. Hamaika hilabete gehiago egin ditu espetxean, Estrasburgok bera eta bere egoera berean ziren 50etik gora euskal presok kalean behar zutela esan arte hain zuzen.



Libre utzi zutenean, zain zituen etxeokak eta lagunak.

Laburrean

Bazkideentzako festa ostiralean, ludotekan

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariaren emanaldia, oparienezko eta denentzako gozokiak banatuko dituztela iragarri dute ludotekakoek ostiral honetarako, azaroaren 29rako antolatu duten festan. Jaia bertako bazkideentzako bakarrik izango da. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da. Bertaratzeko gonbita luzatzen zaie bazkideei; "etorri ondo pasatzera!"

Elikagai Bankuaren saria jaso du Angulas Aguinagak

Urteko enpresa saria jaso du Angulas Aguinagak eta Ibilbide Luzeena saria, Eroskik. Sariketa aurreko astean ospatu zen Foru Aldundian. Sariok, jendarteak soberan dituen elikagaiak hartu eta beharra duten herritarren artean banatzen dituen Gipuzkoako Elikagai Bankuak emandakoak dira. Aurten, ia bi milioi kilo janari, 1,9 milioi kilo banatu dituzte gipuzkoarren artean.

Sohütako Eperra ikastola laguntzeko kanpaina

Abenduaren 3ra arte NOAA!ra deituta (943 360 321) edo egoitzara etorrita eska dezakezue, Eperri ikastola laguntzeko saskia.

Ahuski otarra: 39 euro. Ardi gazta, ahate-patea, bizkotxo poltsa "artisanala" eta ezitia.

Irati otarra: 51 euro. Ardi gazta, ahate-patea, bizkotxo poltsa "artisanala" axoa, xahalki xehatua saltsan. (www.xiberokoikastolak.eu).

noaúa

Kultur Elkartea
Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaúa.com /// www.noaúa.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaúa.com.

Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaúa.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa
Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregei ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Lagunen kezkak

Lagunak kezkatuta ikusten ditut azkenaldian. Sare sozialak, esku-ko telefonoaren erabilera, whatsapp... Jazarpena gero eta handiagoa ei dela nerabeen artean. Gero eta gazteago hasten direla gainera, jazarpen zantzu horiek azaleratzen. "Batuetan pentsatzen dut zer nolako mundura ekarri ditudan seme-alabak", hori zioen asteburuan koadrilako batek.

Ez dakit, ez naiz gauza hauetan iaioa. Baina uste dut guraso guztiek izan

dituztela antzeko dilemak. Gure gurasoen tokian jarrita, garaiak ere ez ziren oraingoak baino errazagoak izango, ezta?

Gure haurtzaroan, kaleak sutan zeuden noiznahi. Bonba-autoen garaiak ziren, poliziaren sarekada batek 17 nerabe inuzente atxiloturik eramaten zituen garai berekoak...

Yonkiak topatzen genituen portaletan, xiringak belazetan... Drogak gazteen iraultza egarria apaltzeko txertatu zituztela esaten zen urtee-

takoak.

Drogak bezain kezkagarri ziren drogen albo-kalteak: hepatitis, HIESa... Hara, orduko beste beldur handia: HIESa. Apaldu bada ere, hor jarraitzen du oraindik.

Lagunak kezkatuta ikustean ni ere kezkatu egiten naiz. Baina uste dut ez dela seinale txarra. Alegia, kezkate-arena. "Zer nolako mundura ekarri ditut seme-alabak" eta antzeko zalantzak dituenak egingo duelako, hain juxtu, bere kezka iturri diren beldur horiek

gainditzeko ahalegina.

Garai hiperteknologizatu hauetan, sare sozialak onak edo txarrak izan daitezke, egiten den erabileraren arabera. Erabilera egokiak erakusten lagun- du beharko zaie, hain zuzen, etxeko txikiei. Eta nagusiei. Eskolan, familian, lagun giroan... Hor egingo da kokxa.

Maite Goñi aditua da gauza hauetan. Hitzaldia eskainiko du abenduaren 16an Udarragin, Hitz Ahok deituta. Deialdia agendan ikusi dudanean, nire lagunekin akordatu naiz.

Luken Arkarazo | Aritz Gorriti | Idoia Torregerai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

Urdirarbe-Usurbil, loturak indartzen

Aurten ere usurbildar koadri- la bat bertaratu da Urdirar- bera, bertakoein Seaskaren aldeko elkartasun afari batean parte hartzera. 150 lagun guztira. Bertan egon zen usurbildar koadrilako batek, Iñaki Agirresarobek NOAUA!ra bidali digun kronika eta argazkia dituzue hemen:

Urdirarbe-Usurbil, 16 urteko harremana

1997.urtean Zuberoako Sohütako Eperra ikastola eraikitze lanetan parte hartu zen egunetik, adiskidetasun bero bat mantentzen dute bi herrietako lagun talde batek. Hainbat urtez, bien arteko pilota partidak, kantu saioak, afari prestaketak, ikastolaren aldeko otar salmentak... hitz batean esanda elkartasuna adierazi. Honen trukean beraien mintzaira jaso, ohituraz jabetu, beste ikusmolde bat ikasi eta guztien gainetik, gugandik



150 lagun batu ziren afari baten bueltan.

ekialderantz dagoen herrialde baten lotura sendotzea lortu da. Handik igarotzerakoan Usurbil herria aipatuz gero, ederki asko dakite non dagoen.

Bestalde, joan den astebukaeran 150 lagun bildu ziren Zuberoako 250 biztanle dituen Urdirarbe herrirain. "Aldaparen" gidaritzapean 12 laguneko taldeak arrain-zopa, bakailu tortilla, entsalada, txuleta eta Azko-

rriako gasna prestatu zuten. Aurretik, urte luzez laguntzaile fin izan diren xiberotar emakume talde bati oroi- garri bat oparitu zitzaion.

Animatzeko Ezpeletako Ezpela musika talde gazteak girotu zuen afalostea. Bi eskusoinu txiki, biolin bat eta atabalarekin eztarriak lanean jarri zituzten goizeko ordu txikiak arte.

Gabon parkerako langile premian

Datozen eguberrietan xoxa batzuk irabazi nahi dituenarentzat lan eskaintza aproposa. Usurbilgo Udala- k eguberrietan Oiarde Kiroldegian antolatu ohi duen Gabonetako Parkerako begiraleak behar dituzte.

Keima Animazioak enpresak kudeatuko du haur eta gaztetxoak hurrengo oporraldian entrete- nitu eta dibertituko dituen aisial- di gunea.

Bertan lan egiteko interesa duenak, kurrikuluma bidali dezake hel- bide honetara: keima@sartu.org. Lanerako eskatzen duten profila honakoa da: batetik, begirale titulu- lua izatea eta bestalde, EGA edo titulu baliokidea izatea.

Kalera, Santa Zezili bezperan

Kalejira eta Sutegin eskaintako emanaldiekin ospatu zuen Zumar- tek azaroaren 21ean, biharamune- ko Santa Zezili, Musikarien Eguna. Urtero moduan, Euskal Herriko musika eskolek eginiko deialdi bate- ratuaren baitan, Kaxkoan kalejira bat egitekoak ziren, eta ondoren, ikasleen emanaldiaz gozatzeko aukera egon zen Sutegin. Auditorioa bete zuten.

Ekintzaileentzako diru laguntza deialdia

Ekintzaileen negozio ideien azter- lana eta enpresa ideia abian jarri edo alta ematera bideratu nahi dituzte laguntzok. 1.500 euro azterlanera, eta beste 1.500 euro ideia martxan jartzeko. Eskaerak aurkezteko epea zabalik dago jada, abenduaren 5era arte, Andoaingo Udalean. Plaza kopu-

rua mugatua izango da, eta horrega- tik, "aurkezturiko eskaera guztien arte- an irizpide hauek jarraituz hautake- ta bat egingo da: sustatzailea eta enpresa ideia arteko bateragarritasu- na, langabezia egondako denboral- dia eta negozio ideia".

■ Eskaerak: abenduaren 5a baino

lehen, Andoaingo Udalean.

■ Emango diren laguntzak: 1.500 euro negozio ideien azterlane- rako eta beste 1.500 euro enpre- sa ideia abian jarri edo alta ema- teko.

■ Informazio gehiago: 943 304 221 edo ekinen@andoain.org

Ezti ekoizleen egun handia

Giro makurra aurtengo Erle Egunean. Hotza, euria eta hezetasuna. Baina hala ere, jendea erruz batu zen frontoi inguruan. Ezti ekoizleentzat urteko egun garrantzitsuenetakoa da Usurbilgo Erle Eguna. Horregatik bertaraten dira urtero jatorri ezberdineko ezti-egileak. Ohi bezala, ezti onenak eta postre onenak hautatu zituen epaimahaia.

Hiru lehiaketa egin dira aurtan eta Elizatik jaitsi zen panpinezko erle batek ekarri zituen irabazleentzako txapelak.

Ezti argian, Joan Mari Arabaola-za oiartzuarra izan da nagusi. Olga Sanchez erreizildarra, bigarren.

Mila loreko ezti lehiaketan, Imanol Aizkorreta oreretarra gailendu da eta Markos Pagola hernaniarra izan da bigarren.

Ezti ilunekoan, Markos Pagola izan da garaile (mila loreko-



Argazkian, saritu guztiak. Erdikoak, Markos Pagola hernaniarrak, bi sari eskuratu zituen.

an bigarren izan den berbera) eta bigarren Ramon Yeregi.

Eztiarekin egindako postre onenak

ere saritu ohi dira Erle Egunean.

Gozogintzan, aurtan, Eider Jauregi eta Kattalin izan dira lehen saria esku-

ratu dutenak.

Bigarren saria Inazio Egañarentzat izan da.

Emakumeenganako indarkeria salatu zuen Ernaik



Emakumeek pairatzen dituzten tratu txarrak eta lan baldintza kaxkarrak irudikatu zituzten Erle Egunean. Bideoan duzue ikusgai.

Aitzagari babesia emateko elkarretaratzea

Epaiketa politikorik ez, Aitzaga aurrera elkarretaratzea egin zuten igandean, Erle Egunaren baitan. Urriaren 17an "Herriko tabernak" izenez ezagutzera eman den 35/02 sumarioari loturiko epaiketa abiatu zen Espainiako Auzitegi Nazionalan. 110 herriko elkarte edo taberna epaituko dituzte, eta 40 lagun auziperatu dituzte. Tartean, Usurbilgo Aitzaga Elkarte. Libre mugimenduak deitu zuen igandeko elkarretaratzea.



Aitzaga epaitzen ari dira "Herriko tabernak" delako auzian.


EROSKI/city
 kale Nagusia 10, USURBIL
 943 361182


 Josue
 Igeltseritza:
 606 37 21 05
 Atallu pol.28 USURBIL

Zuen publizitatea hemen
 943 360 321
 publizitatea@noaua.com



AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

Aita

1 917ko azaroaren 16an jaioa dugu gure aita Antonio, Aiako Olaskoaga-Azpi baserrian. 7 urte zituela baserriz aldatu eta Biraola izenekora joan omen zen familia osoa, zazpi anai-arreba, bera laugarrena. Anaia bat oso txikia zela hil omen zen.

Duela 65 urte auzoko Beldarrain baserriko Pepitarekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten. Lau zaharrenak Aian jaioak gara eta Usurbilen anaia Toribio bakarrik jaioa genuen. Usurbila 1956ko apirilaren 12an etorriak gara. Nik bost urte egin behar ekainean eta anaia gazteak irailean urtea. Aitak Abrasivas del Norte enpresan lan egiten zuen eta 65 urterekin jubilatu zen, duela 31 urte. Bitxikeria moduan esan behar dut ez direla asko izango, lanean baino jubilazioa kobratzen urte gehiago egin dituztenak.

Orain bere etxean dago gozo-gozo eta oso ondo zainduta, denok hor ibiltzen gara bere inguruan. Memoria harrigarria du. Gehiago ezin eskatu. Argazkia, bere urtebetetze egunean egina dago eta ze guapo dagoen. Neure oroimen txiki hau gure aitari.



KALEBERRI

MADDI ZALDUA

Euskal musikagintzara bidaia

2 orduko saio zoragarria izan zen! Azaroaren 12an, Eñaut Eloorrieta eta Mikel Markez musikariek Sutegin eskainitako Baga Biga Higa saioaz ari natzaizue, hain zuzen. Gogo biziz joan nintzen iluntzeko zazpietako zitara. Ekitaldi ederraz gozatuta, eta igaro zen denboraz ia oharitu gabe, bi ordu geroago irten ginen bertatik. Beste bi ordu gehiago ere igaroko nituen gustura!

Euskal musikagintzaren inguruko hitzaldi musikatua eskaini zigiten, bi artistek bertaratu ginen ikus-entzule guztioi. Aitortu behar dut, denboran zehar bidaia labur bat egiteko aitzakia ezin hobea izan genuela; 60. hamarkadaren aurreko garaietan hasi zen ibilbidea eta gaur egun amaitu. Hamarkada bakoitzean geldialdi bat, guztira sei. Horietan guztietan, orduko musika estiloak gogoratu, testuinguruak aztertu eta garaiko hainbat artisten doinu ezagunak gitarra doinuez lagunduta abesteko aukera eskaini ziguten. Zoragarria!

Hau pasa da dagoeneko, joan berri da Erle Eguna herriko jai gozotua, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldi ezberdinak... Baina abendua ere ekitaldiz bete dator. Hotzak hotz, goza ditzazue datozenak ere!



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Mila esker

Pei, Imanol, Unai, Garazi, Mikel, Mari Jose, Ainhoa, Mikel, Joxe Mari, Alazne, Fernando, Eñaut, Xabier Mikel, Mertxe, Martin, Iñaki, Juan Karlos, Marian, Iosu, Pello, Joseba, Xabier, Ekai, Iñigo...

Izen asko, pertsona gehiago. Egindako borroka eta lana, erraldoia eta erudugarria. Lortutako emaitza, ametsik onenekoa gainditu duena: Gipuzkoa, erraustegirik gabeko lurraldea; Gipuzkoa, gehien birziklatzen duen euskal lurraldea; gipuzkoarrak, zero zabor helburura begira jarri diren herritarrak.

Azaroaren 16an ospatu genuen erraustegia egingo ez dela. Lemoizko zentrala geldiaraztearekin parekatu zuten. Nire ustez orain gehiago lortu da: azpiegitura kutsakor baten proiektua geldiarazteaz gain, alternatibak bilatu dira, alternatibak martxan jarri dira eta, garrantzitsuena, herritarrok eguneroko ohiturak aldatuz demostratu dugu, egunero demostratzen dugu, gaikako bilketan oinarritutako hondakinen kudeaketa eredu alternatibo hori dela efizienteena. Hurrengo geltokia, Gipuzkoa gehien birzikatzen duen Europako lurraldea izatera iristea. Bidea ezagutzen dugu, goiko horiek ikusarazi digute. Erraustegiaren kontrako eta birziklatzearen aldeko borrokalarari horiei guztiei, mila esker, egunero akordatu gara zuekin, aire garbia arnastean, organiko konpostatzera eramatean...



KALEZAR

MADDI GALBETE

Igande euritsuak

Zer ote ginateke iganderik gabe? Batzuek gorroto duten eguna izan arren, iganderik gabe argi dago ez genukeela larunbata behar bezala gozatuko.

Pasa den igandean, aspaldiko partez, kalera atera nintzen goizetik. Neguko giro petrala nagusi bazen ere, botak eta txamarra ondo lotu eta han abiatu ginen tabernaz taberna. Pintxo bat hemen, trago bat han. Ahaztua nuen Usurbilen nolako giroa biltzen den igande goizetan.

Mila kontu batu ziren frontoian: alde batetik, Erle Eguneko postuak; bestetik, genero indarkeriaren aurkako pankarta eusten zuen jende multzoa; bukatzeko, Aitzaga parean berori babes emateko txotik ere herritar gehienak pasako ginen.

Giroak bultzatuta herrian bazkaltzea erabaki genuen azkenean, eta arratsaldean Ixabel Agirresaroberen bakarriketa entzuteran joan ginen. Plan hoberik, igande euritsu bat pasatzeko?

Ea hemendik aurrera parranden artetik aurkitzen dugun tartetxorik igandeez ere gozatzeko, bereziak dira eta Usurbilen!

Hirugihar pintxo bereziak, Tipi-Taparen lehen urteurrenean

2013ko azken Tipi-Tapa iritsi zaigu jada, abenduko lehen igandearekin batera. Eta konturatzeko lehen urtea bete du, tabernari eta herritarren artean harrera ezin hobea izan duen Hurbilago Elkarteak antolaturiko ekimen honek. Ibilbide gastronomikoa osatzeko aukera egongo da beste behin, abenduko lehen egunean, Kaxkoko zazpi edaritegiotan; Txapeldun, Artzabal, Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan.

Ohi bezala, pintxoak bereziak izango dira; oraingoan, hirugiharrarekin eginikoak. Edariarekin 2 eurotan, moka-



Edariarekin, 2 eurotan eskura daiteke Tipi-Tapako pintxo berezia.

du berezia bakarrik, 1,5 euroren truke.

Eta hilero moduan, Hurbilago Elkarteak saltokietan xahu-

tzeko 150 euroko erosketa balea zozketatuko dute Tipi-Tapako bezeroen artean; oraingoan, 15:00etan Txirristran.

Hurbilago Txartela baliatzeagatik saritua

Hainbat aukera eskaintzen ditu herriko hainbat saltoki eta taberna biltzen dituen Hurbilago Elkartearen txartelak. Horien artean, hainbat zozketetan parte hartzea. Usurbil Optikak esaterako, saltokiko erosketetan aipatu txartela erabiltzen duten bezeroen artean zozketak egiten ditu hilero. Urriko saritua ondoko irudian duzue; Karmen Lloret da. Betaurrekoen armazoa oparitu diote Usurbil Optikakoek.



Karmen Lloret izan da urriko saritua.

Ezcurraren inguruko jardunaldiak gaztetxean

Arropa eroso jantzi eta Usurbilgo Gaztetxera gerturatzeko gonbita luzatzen dute azaroaren 30ean, goizeko 11:00etan. Ezkurrari loturiko jardunaldia antolatu dute gaztetxeok eta 2011ko udazkenean Euskal Herri mailako topaketak Usurbilen antolatu zituzten Auzolan Elkarteok. Aurtengo topaketa hauek hain zuzen, Gernikan ospatu dira. Han bildutako ezkurak zuritu eta sukaldatzeko aukera izango da larunbatean gaztetxean.

Ezkurak zuritzeko era desberdinak, ezkurak gorde eta mantentzea, zapora mikatza kentzeko era desberdinak eta ezkurak sukaldatzen ikasi ahalko da. Goiza borobiltzeko sukaldetan prestatutakoa jateko aukera izango da. Bazkari beganoa antolatu baitute azaroaren 30erako, borondatearen truke. Ezkurrekin eginko platerak dastatu ahalko dira bertan. Informazio edo argibide gehiago behar duenak: dawamoru2012@gmail.com.

Odol Emaileen Eguna, abenduaren 8an

Usurbilgo Odol Emaileek "2013 urteko bazkaria datorren abenduaren 8an egiteko asmoa dugu, Atxega Jauregian hain zuzen ere. Bertaratu nahi duenak eta bazkarirako txartela eskuratu nahi duenak arduradunetako batekin harremanetan jarri".

Agustina: 943 36 31 02
Maite: 943 36 60 40
Jero: 943 37 07 23
M^a Sol: 943 37 24 87

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskaint.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

“Arnasguneak hedatuz, etorkizuna landu”

USURBILGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ((EH BILDU, H1!, PSE-EE, EAJ-PNV)

A benduaren 3an ospatuko da Euskararen Eguna. Hainbat ekitaldi iragarri dituzte egun horren bueltan. Udalak ere, bere ekarpena egin nahi izan du. Adierazpen hau adostu dute udaletxean ordezkatuta dauden alderdi politiko guztiek.

UDAL ADIERAZPENA

“Abenduaren 3a, euskararen eguna. Aurten ere, euskararen egunean izango da tarterik ospakizunetarako, hausnarketarako edota aldarrikapenerako. Eta, horretarako, ekitaldi ugari eta askotarikoak antolatuko dira Euskal Herriko luze-zabalean.

Lehenik eta behin, euskararen egunak ospatzeko egun bat izan behar duelakoan gaudete. Izan ere, euskara maite dugunok badugu zer ospatu 2013ko abenduaren 3an. Euskara bizirik da, baditu hiztunak, eta etorkizuneko atek zabalik ditu oraindik ere. Baldintzarik gogorrenetan ere, aurrera egin du euskarak, eta horrek etorkizunarekin baikor izateko arrazoiak ematen dizkigu.



Aste honetako udalbatza plenoan eman dute aditzera Euskararen Egunari begira alderdi denek adostu duten adierazpena (argazkia artxibokoa da).

Geroa euskaraz eraikitzeko, ordea, garrantzitsua da zertan ginen jabetu eta egun zein egoera daukagun ikustea. Eta, gaur egun daukagun egoerari erreparatzen badiogu, zonaldearen arabera, oso egoera soziolinguistiko ezberdin eta kontrajarriak dauzkagula ohar-tuko gara. Oraindik ere, arrotz dabil euskara bere herriko hainbat eremutan, aitortza ofizialik gabe eta lege babesik gabe. Aldiz, nagusi da gure herriko beste hainbat eremutan.

Horregatik, tokiko errealitatek abiatutako aurrerapausoak bultzatu behar ditugu. He-

rriz herri euskararen arnasguneak hedatuz landu behar dugu etorkizuna. Gure udalerria euskararen arnasgunea da, zorionez; beraz, lehenik eta behin ezinbestekoa zaigu dagokigun aitortza ofiziala aldarrikatzea. Horrekin batera, gure hauen erabateko normalizaziorako beharrezko ditugun hizkuntza politika ausartak garatzeko baliabideak exijitzea dagokigu, legea bera ere beharren neurriara egokituz.

Udalerri euskaldunetan biztanleen %70ek baino gehiagok daki euskaraz, eta oro har, euskaraz bizi gara bertako he-

rritarrok. Udalerri euskaldunek euskararen arnasgunerik zabalena osatzen dute. Eta hizkuntza batek, biziko bada, nagusi izango den eremuak behar dituen ezinbestean, udalerriko funtzio garrantzitsua dute euskararen geroan.

Horregatik, garrantzitsua da udalerri euskaldunetako administrazioak, batetik, gaiari beharrezkoa zaion garrantzia ematea; eta herritarrok, bestetik, euskararen geroan jada jokatzen dugun paperaz jabetu eta euskararen inguruan sentsibilizatzea. Gure herriak erreferentziazkoak dira euskarari dagokionez, eta ondorioz, baita bertako herritarrek ere. Gure hauetan egiten diren hizkuntza politikak eta norbanakook egunerokoan ditugun hizkuntz ohiturek, jarrerak eta joerak eragin zuzena dute euskararengan.

Gure herritik abiatuta, herritar soilen inplikazioaz, elkarte eta eragileekin bat eginez eta instituzio publikoen laguntzaz pauso sendoak eman ditzakegu euskararen arnasguneak zabaltzeko. Usurbildik inguruko herrietara, Usurbildik Euskal Herrira”.

“Udalerri euskaldunok lege babesa eta baliabideak behar ditugu”

Usurbilgo Udalak, 2013ko abenduaren 3an, euskararen egunean, honako adierazpen hau plazaratu nahi du:

■ Usurbilen euskara nagusi denez, hizkuntza politika ausart eta aurrerakoak garatzeko baldintzak daude. Uda-

lerri euskaldunok lege babesa eta baliabideak behar ditugu aurrerapauso sendoak eman ahal izateko.

■ Udalerri euskaldunek euskararen arnasgunerik zabalena osatzen dute. Eta, beraz, ezinbestekoa da Usurbil bezalako udalerriek euskararen geroan jokatzen duten paper garrantzitsua aitortzea.

■ Gure herria euskarari dagokionez erreferentziazko udalerria dela jakinda, konpromisoa hartzen dugu Usurbilen garapen sozioekonomiko eta soziokulturalak zein bestelako proiektuek sor dezaketen eragin soziolinguistikoa kontuan hartzeko.

■ Euskararen aurkako erasoekin amaitu behar da. Hain-

bat udalek onartutako hizkuntz irizpideen aurka jarritako helegiteek, esaterako, kalte nabarmena egiten diote euskararen normalizaziorari.

■ Usurbilgo Udalak, herriko eragile eta norbanakoekin elkarlanean, euskararen aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

Ekitaldi ugari iragarri dira

“Bertsol Haritza”

ipuin kontaketa saioa

Kantakizuna eta kontakizuna uztartzen dituen emanaldia, abenduaren 3ko Euskararen Egunerako antolatu du San Praixku Guraso Elkarteak. Arratsaldeko 17:00etarako Aginagako ludotekan. Emanaldia, 5-12 urte artekoak zuzendua egongo da. Haritz batean maitzen dira istorioak. Haritz honek, ezkurak eman beharrean hitzak ematen ditu. Hitzok gaztetxoek aukeratuko dituzte eta haritzaren zaintzaileak hitz hori abiapuntu bezala hartu eta dagokion ipuina kontatuko du, euskal kantutegiko hainbat bertso ezagunez lagunduta. Emanaldirako sarrera doan.

Ekimen bereziak ikastolan

Aurreko urteen ildotik, datorrena, astearte berezia izango da Udarregi Ikastolan. Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat ekimen burutuko dituzte egunean zehar, maila desberdinetako ikasle eta irakasleek.

Maite Franko

ipuin kontalaria, liburutegian

Abenduaren 10ean, 18:00etatik aurrera “Mundipurdiko ipuinak” kontatuko ditu, HH5kontzat. Urrutiko kontuak eta han-hemenkakoak azalduko dizkie haurrei. Sarrera doan.

Durangoko Azoka

Abenduaren 5etik 8ra ospatuko da 48. edizioa. Tartean, zenbait usurbildarrek kaleraturiko lan berriak eskuratzeko aukera izango duzue. Azokari buruzko zehaztasun gehiago, datoren astekarian. Informazio osoa: durangokoazoka.com web orrialdean.

Euskarazko produktuen katalogo berria prest

Durangora joan eta hainbeste-



Abenduaren 11n, Kike Amonarrizek hitzaldia eskainiko du Sutegin.

ko eskaintzaren aurrean, zer aukeratu, zer erosi, buruhaus-terik izaten du guraso batek baino gehiagok urtero. Lagungarri suertatuko zaio, hamaseigarrenez, Euskal Herriko 100 bat udal eta mankomunitateetako Euskara Zerbitzuek elkarlanean argitaratu duten Euskarazko Produktuen Katalogoa. 130.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herri osoan. Tartean Usurbilen, Udarregi Ikastolako ikasleen artean adibidez.

2013-2014 ikasturteko edizioan ere, merkatuan aurki daitezkeen kalitatezko euskarazko produktu berrienak bildu eta produktu guztiok zortzi ataletan sailkatu dituzte; musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak. Katalogoa, 16 urte arteko haur eta gazteei zuzendua dago eta paperean bakarrik ez, sarean ere eskura daiteke. Helbide honetan; katalogoa.org. Ataria, urte osoan zehar eguneratzen dute. Papereko edizioan baino eskaintza zabalagoa dago. Bertan euskarazko produktu eskaintza kontsultatu, iruzkinak idatzi edota erosketak egin daitezke.

Abizenak euskalduntzen

Egitasmoa ez da gaurkoa, bai-

na indarrean jarraitzen du interesa duen ororentzat. Alegia, abizena euskarako grafia-raldatu nahi duen orori zuzendua dago albiste hau.

Grafia zuzena zein den jakiteko, euskaltzaindia.net/eoda/deiturak web orrian sartu besterik ez duzue. Abizena euskarako grafia-raldatzea berriz, kontu erraza da. Usurbilgo Bake Epaitegira agiriok eraman besterik ez duzue:

-Errolda agiria. Udaletxeko bulegoetan egiten dena.

-Jaiotze agiri literala: Herriko Bake Epaitegian egiten dute (Donostian erregistratuta daudenek Donostiako Erregistro Zibileran joan behar dute).

-NANren fotokopia.

-Familia liburua (ezkondua egon edo seme-alabarik izanez gero).

Kike Amonarriz, abenduaren 11n Sutegin

Abenduaren 3ko Euskararen Eguneraren harira, “XXI. mendeko euskaldunak: Nola aldatu(ko) diren gauzak Kamarada” hitzaldia eskainiko du abenduaren 11n.

NOAUA! Kultur Elkarteak antolaturiko ekitaldia, iluntzeko 19:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan.

Abenduak 3, Euskararen Eguna

Azaroak 30, larunbata

19:00 Kantu-dantza jira Mikel Laboa plazatik.

Abenduak 1, igandea

Egun osoz, Mikel Laboaren musika entzuteko aukera Kaxkoan.

17:00 Haurrentzako zinea euskaraz Sutegin: “Blackie & Kanuto”. Sarrerak egunean bertan, 3 eurotan.

Abenduak 3, asteartea

9:00-16:30 Ekimenak egun osoz, Udarregi Ikastolan.

17:00 “Bertsol Haritza” ipuin kontaketa saioa, Aginagako ludotekan. 5-12 urte artekoak zuzendua. Doan.

19:00 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Ondoren, kantu-afaria Txapeldun tabernan. Txartelak 15 eurotan daude salgai, abenduaren 2ra arte.

Abenduak 5-8,

ostegunetik igandera

48. Durangoko Azoka. Zenbait usurbildarren lanak eskuragarri bertan.

Abenduak 8, igandea

18:00 Helduentzako zinea Sutegin: “Azken bidaia”. Sarrerak egunean bertan, 5 eurotan.

Abenduak 10, asteartea

18:00 Maite Frankoren, “Mundipurdiko ipuinak” saioa udal liburutegian. HH5ekoei zuzendua.

Abenduak 11, asteazkena

19:00 Kike Amonarriz hitzaldia Sutegin: “XXI. mendeko euskaldunak: Nola aldatu(ko) diren gauzak Kamarada”.

Jai egunetan... mendira dudarik gabe

Igande goizetan etxean geratu? Pentsaezina da hori, jarraian aurkeztuko dizkizuegun hiru lagunontzat. Eguna argitzerako, ahalik eta goizen jaiki, prestatu eta mendi alderako bidea hartu ohi dute, hutsik egin gabe, ahal duten guztietan. Eurentzako, biziki gustuko duten zaletasunerako hartzen duten tartea da. Gaia aipatzen bazaie, segituan, hainbat bizipenez eta mendiak emandako hainbat poztasun uneez oroitzen dira. 2012ko Mendi Astean, Andatza MKT-koek omendu zituzten, Miel Arrastoa, Prudentzio Egileta eta Martin Agirresarobe usurbildarrez ari gara. Egunotan ospatuko den ekimen honen edizio berriaren bueltan, NOAUA:n bildu ditugun hiru lagunenez.



Prudentzio Egileta, Miel Arrastoa eta Martin Agirresarobe, bizia mendiari lotua.

Eurekin hitz egin hasi orduko, zenbat bizipen dituzten partekatzeke. Kilometro kopuru zenbatu ezina egin dute urte luzeotan. Gaztetatik. "Michelinen greban nengoela, bitartean baserrian lanean aritzen nintzen. Jai batean, Erniora joan nintzen lagun batekin. Gero autoan bila joango zirela. Baina artean sasoiaren ginen eta oinez etorri nintzen. Geroztik beti segitu izan dut", dio Mielek. "Beti asteburua etortzeko

MARTIN AGIRRESAROB

"Hemengo mendiak denak paseak izatea. Gurea hori da. Eguraldi txarra bada berdin du, mendira"

zain", Kalezarko bizilagunaren esanetan. Igande goizero mendira, "zenbat eta goizago nahiago" eta bazkal ordurako

iritsi ezinik ere bai behin baino gehiagotan. Eta mendian zenbat eta gehiago ibili, orduan eta gehiago gustatu. Prudentziori bezala. "Gaztetatik, ikastetxean, martxa luzeak egina-razten zizkiguten. Nahiko gogorra izaten zen. Hortik hasi nintzen", oroitzen du Prudentziok. Ibiliaren ibiliz, geroz eta altuera handiagoko tontoretara igotzen hasi zen. Gustukoena dituen Pirinioetara heldu arte.

Martinek ere Pirinioak edeki asko ezagutzen ditu, hiru milako eta zeharkaldi asko egindakoa baita. Txikitatik dator kio mendirako joera. "Gaztetatik hasita, beti mendian. Gero ehizean hasi eta mendian beti", Agirresaroberen esanetan. Horregatik ez da harrizkoa, Martinek dioen moduan, "hemengo mendiak denak paseak izatea. Gurea hori da. Eguraldi txarra bada berdin du, mendira".

Miel Arrastoa: "Kalean baino mendiko lagunak gehiago ditut"

Denetarik bizipenak dituzte, pozgarriak, estuasunak, gaziak, gozoak... Bel-durra ez, mendiari ordea errespetua zor zaiola diote. Mendiak zer eman dien galdetuta, indarra, gaztetasuna, lagunak aipatzen dituzte. "Poztasuna. Mendi gaza-

te sentitzen naiz", dio Mielek.

Prudentzio Egiletaren esanetan, "mendira joan gabe pobre geratzen zara. Natura gustuko duzu eta horretara zoaz. Natura kontentplatu eta gozatzen. Gailurrera igotzean sufritzen da, baina konpentsatzen du. Mendira bakarrik joaten

naiz baina beti norbaitekin topo egiten dut beti".

Eta gero beti topatzen dira berriz, mendi hartan edo honetan ezagututakoak. "Lagunak segituan egiten dira. Kalean baino mendiko lagunak gehiago ditut", dio Miel Arrastoa.



Hirurak batera elkarrizketatu ditugu.

“Sorpres handia izan zen omenaldiarena”

Baina euren ibilbide luzeak ezusteko goxorik ere eman die hiru mendizale hauei. Iazko Mendi Astean Andatzakoek omendu zituzte-nean esaterako. “Sorpresaz harrapatu ninduten. Aurrena Sutegira joan eta gero han ginel, oholtza gainera igo behar genuela”, oroitzen du Prudentziok.

Ikusleen artean zen baita Miel. Semeak txukun jantzita joateko esana zion badaezpada. Baita Martin ere. “Ez nuen ideiarik ere. Etxekoek bazekiten eta Sutegira joateko esan zidaten. Sorpresa handia izan zen, oso ona”, Martinen esanetan. Pozik eta esker onez hartu zuten hirurek, antolatzaileen eskutik jasotako mendiko makila bana. Andatzakoek antolaturiko hainbat irteeratan ere parte hartu izan dute. Gustura joaten dira taldean mendira.

Asteburu honetarako zer plan duten galdetu diegu. Ez dute askorik pentsatu beharrik izan. Segituan aipatu dute. Egunotan ospatuko den Mendi



“Jaiez etxean? Pentsatu ere ez, garai batean mezetara joateko ohitura zegoen bezala, gu mendira”

Iazko Mendi Astean Andatzakoek omenaldia jaso zuten.

A s t e a amaitzeko, Usurbilgo mugarrietatik barrena irteera antolatu du Andatza MKT-k larunbat goizerako. Eta gero otorduko goxo askoa Patrín. “Urtero ateratzen gara irteerara. Gero jai-

tsi eta onena, Patríneko bazkaria eta hango kontuak”, dio Martinek.

Irteera honen ostean, hara edo hona joango dira ziur, mendi aldera behintzat bai. Igandean etxean geratu, ezta pentsatu ere. “Jaiez etxean?

Pentsatu ere ez, garai batean mezetara joateko ohitura zegoen bezala, gu mendira”, dio Mielek. 85 urte ditu Arrastok, 80 Prudentziok, 76 urte betetzear Martinek. A ze saioia duten. Segi dezazuela horrela!

Asteburuan, Andatzakoekin hitzordu ugari

Azaroak 27, asteazkena
19:30 Hitzaldia eta ikus-entzunezkoa Sutegin: “2010 Marimendiak Andetan” Uxue Berridiren eskutik.

Azaroak 28, osteguna
19:30 Ikus-entzunezkoa Sutegin: Alex Txikonek Karakorumen egindako ibilaldiak eta hainbat jauzi ikusteko aukera.

Azaroak 29, ostirala
19:30 2013an Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak antolatutako mendi irteeren bideo eta argazki emanaldia Sutegiko auditorioan.

Azaroak 30, larunbata
8:00 Mendi ibilaldia mugarrietara. Ondoren, bazkaria Patri jate-txean.

Oharra:
-Sutegin burutuko diren ekitaldien aurretik, 2014ko federatu txartelak berritu edota asteburuko ibilaldirako izena eman ahalko da.

Informazio gehiago:
www.andatzamendizale.info

Antolatzailea: Andatza Mendizaleen Kirol Taldea.



Aurten egin dituzten irteeretako irudiak eskainiko dituzte Sutegin ostiralean.

“Guztiok batera aldatuko dugu”

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen azaroaren 25a. Egunotan, hainbat ekimen burutu dira herrian, indarkeria sexistaren aurka, Parekidetasun Kontseilutik bideratuak. Honen guztiaren harira, Ernaik idatzi hau igorri du NOAUA!ra:

Emakumeenganako Indarkeriak baditu milaka aurpegi

“Itsua definizioz ikusten ez duena da, baina bada itsu okerragorik ikusi nahi ez duena esaterako edota ikusita ere ez-ikusiarrena egiten duena. Txiki txikitatik normalizat jotzen ditugu hainbat egoera, adibidez, betidanik dakigu gure amona dela sukaldaririk onena eta amak baino hobeto inork ez gaituela zainduko. Beharbada, ez gara inoiz pentsatzen jarri honen inguruan. Hala da, betidanik eta kito?”

Indarkeria sexistak baditu milaka aurpegi, mila ahots, mila adierazteko forma eta esparru. Emakumeon aurkako indarkeria bizi garen sistema kapitalista patriarkalaren funtzionamenduaren ezinbesteko tresna da, eredu honek sortzen dituen pertsonen arteko botere harremanak, menpeko harremanak bizirauteko eta mantentzeko erabiltzen duen baliabidea izanik. Ez dira modu isolatuan eta bakartuan ematen diren erasoak; bizi garen jendartearen antolaketak sexistak ahalbidetzen eta sustatzen duen indarkeriaren erabilera ari baikara. Honengatik, bikote harremanen barruko indarkeria kasuak erdigunean jartzeak, emakumeon aurkako beste indarkeria adierazpen batzuk itzalean uztea dakartza.

Presaka bizi gara bai, baina egunerokotasuna hausnartzeko tartetxo bat hartu beharra daukagu, hainbat jarrera aldatu behar ditugu. Izan ere, hainbat eraso ez ditugu ikusten; naturalki eta isilpean jasaten ditugu. Bada garaia sistemari hortzak erakusteko eta esateko ez garela bere tranpan eroriko. Ez dugula emakumeon aurkako indarkeria gehiago onartuko! Emakume izateagatik ez ditugu gure gain hartuko zaintza eta etxeko lanak, ez gara bigarren mailako pertsonak, gure eskulanak beste edozeinena adina balio du, maitatzea ez da norbaiten objektu izatea, errespetatuak izan behar gara uneoro eta etxerako bidean ez dugu beldurrik izan behar ilun badago ere... Zuk ere hau guztia alda dezakezu, guztiok batera aldatuko dugu!”



Parekidetasun Kontseiluak hainbat ekitaldi antolatu zituen asteburuan. Bordaxora igo ziren larunbatean eta bertan atera zuten ondoko argazkia.



Larunbat eguerdian hainbat ekitaldi egin ziren frontoian. Argazkian, Kantu Taldekoak.



Dantza Taldekoek ere parte hartu zuten indarkeria sexistaren aurkako kanpainan.



Proposamen artistiko ezberdinak egin ziren larunbatean, tartean, gazteen kontzertua.

Patri Jatetxea

 K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Otar-Goxo
 Elikagaiak
 Zubiaurrenea, nº2
 ☎ 943 36 55 81
 20170 Usurbil

Errazkin S.L.
 igeltseritza orokorra
 943 24 01 76 eta
 649 435 470
 errazkinsl@euskalnet.net
 Oztaran auzoa 33, URNIETA

JUANTXO
 BURDINDEGIA
 Zubiaurrenea 8
 ☎ 943 370 008

Jostailu Azoka antolatzekeo laguntzaile premian dira Hitz Ahoko kideak

A benduak 14ko Jostailu Azokarako Hitz Aho guraso elkarteak laguntza eskatu du. Jostailuen bilketa egiteko (abenduak 11, 12, 13 Sutegin) eta egunean bertan laguntzeko. Hitz Ahorekin harremanetan jartzeko idatzi mail bat hitzaho@udarregi.com helbidera edo zuzenean bertan lanean dauden gurasoekin harremanetan jarri zaitezke.

Abenduaren 11tik 13ra bitartean, jostailuak batuko dituzte arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara Sutegiko erakusketa aretoan. "Biltzen dugun guztia abenduaren 14ko azokan ikusgai jarriko dugu", frontoian, aurreko urteetan bezalaxe.

Truke asmoa sustatzeko helburua ere badu Jostailu Azokak: "azoka egunera hurbiltzen zaretenak, egun horretan etxetik ekartzen dituzten jostailuak guk azokan jarritakoekin trukatu ahal izango dituzue".

Jostailuei erabilpen berriak eman eta haurren artean ohitura hori

zabaltzea da helburua.

Betebeharreko baldintzak

- Jostailuak osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.
- Bilketa egunetan jasotzen dena musu-truk emango da. Horren truke, nahi izanez gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren baten-gatik aldatzeko.
- Azokan jostailuak trukatzeko 8 urtetik beherakoek arduradun batekin parte hartu behar dute.
- DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.
- Azokaren bukaeran geratzen diren jostailuak beharra duten erakundeetara bideratuko dira.

Abenduaren 16an, teknologia berriei buruzko hitzaldia

Azken urteetan, teknologia berriek (mugikorrek, ordenagailueketa antzeko gailuek) aldaketa handiak eragin dituzte gizartean, batez ere, komuni-



Jostailuak biltzeko eta, egunean bertan ere, jendea behar da.

katzeko moduan. Komunikazioa asko erraztu dute baina eragozpenak ere sortzen ditu teknologia berrien erabilera desegokiak. Kezka horrekin, Hitz Ahok hitzaldia antolatu du.

Esparru hau, guraso askorentzat berria da eta gai honekiko kezka sortzen dira. Hori dela eta, Hitz Aho guraso elkarteak hitzaldi bat antolatu du.

- Interesa duten guraso guzti-tzat.
- Abenduak 16 astelehena.
- 17:00-19:00. Udarregi ikastolako erdiko aretoan (ikastola gorrian).
- Maite Goñi adituaren eskutik.
- Antolatzailea: Hitz Aho guraso elkarte.

Hitzaldia Aginagan

"Ardura nola sustatu" hitzaldia antolatu du San Praxiku Guraso Elkarteak, Udalaren laguntzarekin. Abenduaren 12an osteguna 19:00etan, Aginagako ludotekan.

Jakin eta Jolas pailazoak Aginagan

Abenduaren 14an, arratsaldeko 17:00etan Aginagako ludotekan Jakin eta Jolas pailazoak, Antxomolantxak iragarri duenez.

Aginagako ludoteka

Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra arte, goizeko 9:30etik 13:30era. Izena emateko epea, dena den, abenduaren 13an amaituko da. Aginagako ludoteko bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte, bazkide ez direnek, 40 euro.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, Antxomolantxa elkartearen. 637 332 402.

Mari Domingi eta Olentzero

Abenduaren 23an 17:00etan, Antxomolantxatik iragarri dutenez.

NOAUA! Txiki

Pasaian izan ziren Udarregi ikastolako ikasle hauek

Kaixo lagunok, urriaren 17an Pasaian izan ginen. Oso ondo pasa genuen.

Ba al zenekiten?

..... Portuko salgai ohikoenak txartarra, burdina, altzairua, autoak eta ikatza direla?

..... Kaietan metatzen diren burdin



pilo horiek guztiak oso garrantzitsuak direla Gipuzkoako industrian ?



..... Milaka eta milaka auto ikus ditza-kegula?



..... Orain gutxi arte salgai garrantzitsuenetako bat ikatza zela Zentral Termikoa elikatzen zuelako?

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

LATAILLADE
ITURGINTZA
 Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021


Usurbil Futbol Taldea, martxan



Usurbil FTko jokalar, entrenaizale eta zuzendaritzako kideak. Taldekako argazkietan nesken taldea falta da.



Alebinen taldea.



Jubenilak Ohorezko Mailan jokatzen ari dira.



Preferente Erregional taldeko jokalar batzuk.



Zuzendaritza taldekoak eta entrenaizaleak.



Kadete taldea ohorezko mailan ari da jokatzeko.



Infantil taldea.



Futbol Eskolako kideak.

Errebote Txapelketako finala, bertan behera

Eguraldi txarragatik bigarren bez bertan behera utzi dute Endika Abril Errebote Txapelketako Zubieta eta Luzaz Gazte taldeen arteko finala. Zehazteke dago noiz jokatu den 50. edizioari amaiera eman asmo dion neurketa. Itxura guztien arabera, udaberrian izango da.

Eskubaloia Oiardon

Azaroak 30, larunbata

9:30 Alebin neska: Udarregi 6B-Udarregi 5A
 9:30 Alebin neska: Udarregi 5C-Urnieta 5A
 10:30 Alebin neska: Udarregi 6A-Urnieta 5B
 11:30 Infantil neska: Udarregi C-Egia Bat
 12:30 Infantil neska: Udarregi A -Aloña Mendi A
 16:00 Kadete neska: Usurbil K.E.-Kukullaga
 17:30 Jubenil neska: Usurbil K.E.-Kukullaga
 19:15 Senior mutilak, 1. T: Usurbil K.E.-Urola

Abenduak 1, igandea

10:00 Kadete mutilak: Usurbil K.E.-Saieko K.E.

Futbola Haranen

Azaroak 30, larunbata

10:00 Alebinak.
 12:00 Kadeteak: Usurbil F.T.-Vasconia
 13:30 Areto futbola. Usurbil FT-Laskorain
 15:30 Preferenteak: Usurbil F.T.-Behobia
 17:30 Regional neska: Usurbil F.T.-Touring

I. Ziklokross saria Ramon Unanueren omenez

Abenduaren 1ean ospatuko da Buruntzapzi Txirrindularitza Eskolak antolatuta, Lasarte-Orian, Urbil merkatalgune ondoan. Zendu berri den Joxe Ramon Unanueren omeneko txapelketa honetan, alebin, infantil, kadete eta jubenil mailako txirrindulariek parte hartu ahal izango dute. Abenduaren 1ean, goizeko 9:30etan hasiko da txapelketa. Orduotarako zitatu dituzte txirrindulariak, Urbil ondoan:

9:30ean alebinak-infantilak, 10:00etan kadeteak, 11:00etan jubenilak.

Abenduaren 6an eta 7an, euskal selekzioarekin

Kadete mailako eskubaloiko euskal selekzioek abenduaren 6an eta 7an egingo dituzten entrenamendu saioetarako gonbita jaso dute beste behin ere, Usurbil Kirol Elkarte kide batzuk; Estitxu Berasategi Eizagirrek nesketan eta Mikel Atxega Arruti eta Xabat Beloki Segurola jokalariek mutiletan.

ETXEBIZITZA

Salgai

Sanesteban kalean pisua salgai. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, eta balkoia. Dena berriua. Tel. 699 680 265. 150.000€.

Baxua salgai Errekatzekin (61 m²) + pisu azpiko trasteleku (61 m²). 2008ko obra berria. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Aire egokitua, bergailua, beira bikoitzeko leihoak... oso funtzionala. Bizitzan jartzeko. 649 895 858

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukeratu ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m². 2008-an guztiz berriua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m² egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeke modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpian. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berriua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroaren pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parke... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpo aldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berriua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriua. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 2 logela, egongela, sukaldea eta trastelekuarekin. 550€ negozio-garriak. Tel. 637 962 568.

Logela bat alokagai. 200€ + gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161.

Pisua alokairuan Santuenean. Berriua, 2 logela. Urtarrilatik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Etxebizitza alokatzen da Atxegalden. 3 logela, egongela, 2 komun eta sukaldea. Tel. 626 347 914.

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gastu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Atxegalden pisu bat. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, terraza eta igogailua. 637 309 209.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

Kaxkoan pisu bat alokatzen da altzariekin, 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta trasteroarekin. 618 860 270

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastuak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495-695767821-657711335

Usurbildarra naiz eta etxe bat alokatu nahi nuke inbiliarik bitarteko izan gabe. Interesatuak deitu mesedez 661568471 telefonora

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berriua, 2 logela, 650 euro.

Tf: 667 438 145.

MOTORRA

salmenta, garajeak

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

Garaje itxia alokatzen da Txaramunto auzoan. 15 metro karratuko. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.781cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4Tdi 80zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzaila eta beti garajea.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketara edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeke garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeke lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeke lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeke garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingelesko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeak eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzailere moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordu-tegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zaintzeko prest nago. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gai-ko dauden pertsonen irizaintza zainketak emateko prest nago. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udan zehar goizez zein arratsaldean. Irakaskuntza graduatuz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zaintzeko prest nago goizez zein arratsaldean. Irakaskuntza diplomaturatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko



Zorionak Oihantxo!
Beti esan eta esan 4 urte dituzula, eta azkenean bete dituzu azaroaren 25ean. Zorionak pottolo!



Zorionak Herri!
18 urte beteko dituzu azaroaren 27an. Zorionak zaren bezalakoa izateagatik. Infinito maite zaitugu. Etxekoak.



Zorionak Haitz!
Azaroaren 22an gure potxoko txikiak 2 urte bete ditu. Muxu potolo bat etxekoen partez.



Zorionak Ana! Ondo pasa zure seigarren urtebetzean, azaroak 30ean. Muxu potolo bat aitaxo, amatxo eta Hugoen partez.



Zorionak Peru!
Azaroaren 27an urte bat egingo duzu. Muxu potolo bat Eñaut eta familia guztiaren partez!

Heriotzak

Joxe Iparragirre Alkorta 75 urterekin hil zen azaroaren 21ean, Zubietan



pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketetan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997

(Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo internan moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketara lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldetan lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketak egiteko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Lan eskaintzak

Papelak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldako

laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... Berehala lanean hasteko moduan eta esperientzia asko. 648 761 874.

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenerik ostiralera. 635742503

Emakume bat zaindu eta etxeko lanak egingo dituen internan behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko da. 943 300518 (M^a Angeles)

BESTELAKOAK

Behor bat salgai. Raid edo ibilaldietarako oso egokia. Izaera ezin hobea. Fisikoharrigarria. 620011889

Neskarentzat baserriar jantzia erosi nuke 6 tailakoa. 605761640

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Justekobi makinak salgai. 943363201.

Indukziozko sua salgai. Bi urte dituen baldintza onetan dago. 943361

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arretra ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkartea	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak azaroak 28-abenduak 8

Osteguna	28	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Ostirala	29	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Larunbata	30	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Igandea	1	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Astelehena	2	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Astearte	3	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena	4	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte

Osteguna	5	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Ostirala	6	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Larunbata	7	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Igandea	8	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinaksalgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Telebista salgai, Sony. Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Pedalik gabeko bizikleta bat utzi nuen frontoian, ostiralean edo larunbatean. Decathlon-ekoa, kolore urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

Aginagako artoa salgai 687706363

Usurbilgo baserri batean hazitako oilasko eta untxiak saltzen ditugu. 652 725 022.

Erosi gasolina sorgailu elektrikoa, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Paga. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

2 ohe eta sofa bat behar ditugu premian den herriko familia batentzat. 687 348 223

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Agenda azaroa / abendua

29 ostirala

- **Elkarretaratzea** 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Andatzakoen mendi irteeren proiektzioa** 19:30ean Sutegiko auditorioan.

30 larunbata

- **Mendi Astea:** 8:00etan mendi ibilaldia. Ondoren bazkaria Patrin.
- **Kantu-dantza-jira** 19:00 Mikel Laboa plazan.
- **Ezcurraren jardunaldia** **Gaztetxean**, 11:00etatik aurrera.

1 igandea

- **Euskal Herriko Mendi Duatloiko proba** **Zubietan** 11:00etan hasita.
- **Tipi-Tapa** 15:00ak arte.
- **Blackie Et Kanuto** filma 17:00etan Sutegin.

Kantu-dantza-jira izango da larunbat honetakoa

Azaroak 30 izango ditu larunbat honek, hila-beteko azken asteburua, kantu zaleen hitzordua beraz. Abesten aritzeko aukera ederra izango dute herritarrek, Kantu Taldeak iluntzeko 19:00etarako Mikel Laboa plazan deitu duen kantu-jiran. Afal ordura arte, Kaxkoan barrena euskal kantuak abesten arituko dira, Susi Eloseggi Udarregi Ikastolako musika irakaslea gidari dutela.

Baina adi, oraingoan kantuan bakarrik ez, dantzaren ere arituko dira; larunbateko hitzordua, kantu-dantza-jira izango baita, Kantu Taldeak eta Dantza Taldeak elkarlanean antolatutako ekimena. "Hilabete bada jada Usurbilgo talde sendo bat euskal dantzak ikasten ari dela Udarregi Ikastolan. Ikasi dutena plazaratzeko asmoa daukate. Horregatik, Kantu Taldeak eta Dantza Taldeak elkarlanean antolatu dute ekimena: kantua eta dantza txandatu", adierazi dute antolatzaileek. Kanturako eta dantzarako gonbita egina dago beraz, larunbat honi begira.

Kantu Taldekoak, Euskararen Egunean

Abenduaren 3ko Euskararen Eguna, asteartez egokitu da aurten. Asteartetan entseatzeko bildu ohi dira Kantu Taldekoak Udarregi Ikastolako musika gelan. Datorren asteartean ordea kalera irten go dira, Euskaren Eguna ospatzera. Kantu-jira labur bat egitekoak dira herrian zehar, iluntzeko 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta. Eta



Euskararen Egunean ere kantuan aterako dira. Ondoren kantu-afaria egingo dute eta izena emateko epea irekita dago.

ondoren, Txapeldun tabernan lagun arteko kantu afari goxo bat antolatu dute. Afaritarako txartelak salgai egongo dira 15 eurotan, abenduaren 2ra arte, Txapeldun tabernan bertan. Afaritarako menua, ezin erakargarriagoa: iberikoaren platera, frijitu nahasiak, gazta-menbrilloa, kafea.

Laboaren musika,

bere heriotzaren urteurrenean

Bost urte beteko dira igandean, Mikel Laboa gure artetik joan zenetik. Aurreko urteetan bezala, Usurbilen hain maitea zen artista gogoan izango da egunean zehar, abenduaren 1ean. Bere musika entzun ahal izango da Kaxkoan.

Datozenak

Abenduan ere, zinea euskaraz Sutegin

Helduentzako eta haurrentzako film bana proiektatuko da Sutegin. Euskararen Egunean bezperatan eskainiko da haurrena, igandean honetan, abenduaren 1ean. "Blackie Et Kanuto", 17:00etatik aurrera. Sarrerak egunean bertan eskuratu ahal izango dira, 3 eurotan.



Abenduaren 8an, "Azken bidaia"

Hilaren 8an, 18:00etatik aurrera eskainiko dute helduentzako pelikula; "Azken bidaia". Duela 60 urte baino gehiago, gau batez izandako zoriza gertaera bat azaltzen du filmak. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, 5 eurotan.

Errausketaren aurkako ekitaldia

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak antolatuta, abenduaren 5ean, 19:00etan Sutegin. "Erraustegia: kedarretatik argira" izeneko saioan, "Bukatu da jolasa" izeneko ikus-entzunezko lan bat ezagutzeko aukera egongo da, hitzaldia eskainiko du gero GHK-ko lehendakari Ainhoa Intxaurrendietak. Eta amaitzeko, bertaraten direnen galderen txanda.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK



Hator, hator...

Alkartasuna
Usurbilgo Baserritar Kooperatiba
alkartasuna@usurbil.com
www.alkartasunausurbil.com
Rtallu industrialdea 26
☎ 943 361 114

- Danbolina

- Abarkak, txapelak, galtzetinak ...

- Pazko loreak

- Gabonetako otarrak

- Ardoak

- Egutegia


gaitzen orri bat, eta izenburu bat letra larritz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA
orri bat, eta izenburu bat letra larritz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA
bat, eta izenburu bat letra larritz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA
eta izenburu bat letra larritz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA
izenburu bat letra larritz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA
bat letra larritz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA
letra larritz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA
larritz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA
idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA
EMAKUMEAK ETA LITERATURA
ETA LITERATURA
LITERATURA

48. DURANGOKO AZOKA

kulturaren plaza

2013ko abenduaren 5etik 8ra

www.durangokoazoka.com

  @durangokoazoka



GABONETAKO LOTERIA OPARI

Azaroan eta abenduan,
HURBILAGO txartela erabiltzen
duten bezeroen artean,
GABONETAKO LOTERIAREN
2,50 €ko partizipazioak
zozketatuko dira.

Saltokietan emandako tiket
sarituen truke, loteria
partizipazioak
Nafarroako Rural Kutxan
eskuratu ahal izango dira.

huribilag

Usurbil
osasuna atez ate



Erosi zure herriko saltoki txikitetan. enplegua mantentzen
eta Usurbilgo herriari bizia ematen lagunduko duzu.
Denok irabaziko dugu.

